


Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI IGERIKETA

Ate irekiak, igeriketa taldean

«Parte-hartzailea eta barnertzailea» da Hernaniko igeriketa taldea, eta ate irekiak egingo ditu 9 urtetik gorako neska-mutilentzat. Aurrenekoa gaur, 18:00etatik 19:00etara; hurrena, hilaren 12an. ||

HERNANI ERABAKI

Proposamen bila gaur, Portura

Erabaki Hernani parte-hartze prozesuan proposamenak egiteko epea irekita dago, hilaren 17ra arte. Bestalde, gaur 19:00etan Portun bilduko dira bizilagunak entzuteko. ||

ASTIGARRAGA UDALA

Ongietorria bihar, astigartar berriei

Bizikidetzatza Sailak antolatuta, ongi-etorria egingo zaie bihar, Eribera plazan, Astigarraga bizitzera etorri direnei. ||

HERNANI SAN JOAN

San Joanetan ateratzeko, bilera

Urtero bezala, San Joan konpartsak emanaldi berezia eta desfilea egingo ditu San Joanetan, ekainaren 27an, eta bertan atera nahi dutenak bilera deitu ditu gaur, 19:30etan Biterin. Bestalde, larunbat honetan hileroko erromeria egingo da, 18:30etan Plaza Berrin. Jeiki Hadi taldeak gidatuko du. ||

HERNANI AKELARREA

Entsaioa gaur, akelarre txikiak

Biterin jarri dute zita 18:00etan, akelarre txiki entsaioa egiteko. Hurrena, astelehenean, 18:00etan Atsegindegin. ||

HERNANI EH BILDU

Batzarra gaur, baloraziorako

Apirila eta maiatzeko hauteskunde balorazioa egiteko batzarra deitu du EH Bilduk, 19:00etan Andrekaleko Bilgunean. Datorren legeitzaldiko antolaketa ere hitz egingo da. ||

ASTIGARRAGA MUTTUAI FEST

Musika eta antzerkia kalera, Muttuai Festen

Ekainaren 13tik 16ra egingo da Muttuai Fest: musika eta arte eszenikoak kalera aterako dira, «kale giroa eta herri bizitza indartu» eta «herri merkataritza eta ostalaritzari ikusgarritasuna emateko».

ASTIGARRAGAKO eragile talde batek atzo aurkeztu zuen ekainaren 13tik 16rako antolatzen ari den Muttuai Fest jaialdia. Lau egunez, batez ere arratsalde, musika eta arte eszenikoak kalera aterako dira; 20 emanaldi inguru egingo dira lau egunetan, kultur etxearen kanpoaldean, Murgia Jauregian, eta Apeztegi plazan.

Ekimena «lagunarteko el-karrizketa batean sortu» zela azaldu zuten atzoko aurkezpenean, festibaleko sustatzaile eta antolatzaileetako batzuek; Intermezzoko Iñigo Plazaolak, Astikoko Alfredo Ruizek, Zorione Etxezarraga alkateak, Musika Eskolako Maite Aranburuk eta Petritegiko Ainara Otañok. Helburuak dira, besteak beste, «kale giroa eta herri bizitza indartzea, eta herri merkataritza eta ostalaritzari ikusgarritasuna ematea». Horretarako, «Astigarraga tradizio handia du-



Astigarragako Sagarolore Hotelean egin zuten atzo, Muttuai Fest jaialdiaren aurkezpena.

en udalerrria» dela aprobetxatu eta «herriko artistekin zein kanpokoekin» osatu dute agenda. Xehetasun gehiago larunbateko Kronikan emango dira.

Errifak, salgai
Festibala doan izango da, baina laguntza emateko, errifak salgai jarri dira 2 eurotan, herriko hainbat dendatan.

Ekainaren 16an egingo da zozketa; saria izango da Kako jatetxean lau lagunentzako afaria. Sare sozialetan ere emango da irabazleen berri. ||

HERNANI CHILLIDA LEKU

Udako solstizioa Chillida Lekun, Kukairekin

Ekainaren 21ean, 21:30etan 'Erritu' dantza ikuskizuna egingo du Kukai taldeak Chillida Lekun. Sarrerak 20 euroan daude salgai Hernaniko turismo bulegoan edo museoaren webgunean.

ERRITU izeneko dantza ikuskizuna emango du Kukai dantza taldeak ekainaren 21ean Chillida Lekun, udako solstizioaren bueltan.

Sarrerak salgai jarri dituzte www.museochillidaleku.com webgunean eta Hernaniko turismo bulegoan; 20 eurotan helduentzat, 12 eurotan 18 urtetik beherakoentzat, eta doan,

8 urtetik beherakoentzat. Eguraldi txarragatik emanaldia bertan behera geratuz gero, atzeratu egingo da, baina sarrera berak balioko du, eta dirua berreskuratzeko aukera ere emango da.

Emanaldia, kanpoaldean
Ikuskizuna «bizitzako egoera desberdinetan barrenako bida-

ia bat da, erritu indibidual eta kolektiboen bitartez egiten dena, natura eta komunitatearekin etengabeko harremanean». Horregatik, «Eduardo Chillidak museoari atxikitzen zizkion printzioekin bat» datorrela diote antolatzaileek, eta «eszenatoki bikaina» izango dela.

Kanpoaldeko zelaian izango da emanaldia, eta belarretan

eseritzeko manta edo toailak eramateko gomendatu dute.

Autobusak, Hernaniraino
Museoa irekita egongo da 20:15etatik, eta autobusean joateko gomendatu dute, edo Galarretan aparkatzeko. Autobusak jarriko dira Galarretatik museo-oraino, eta bueltan, Udalak Hernaniraino ere jarriko ditu. ||

PROKOLOR ZENTRUA MARGOAK Landaribar, s.l.

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
7:30 - 13:00
15:15 - 19:00

LARUNBATETAN
9:00 - 13:00

pinlan@pinlan.es

943 55 21 31
ANDRE KALEA, 45
HERNANI

4 litroko Sideral Eco, Monocapa edo 100% Selección

BI KUBETA EROSI ETA MUGIKORRERAKO ALTAZOZ INALANBRIKO BAT ERAMANGO DUZU DOAN!
(Existentziak bukatu arteko eskaintza)

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN!
AHOLKULARITZA PROFESIONALA

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

Zerbitzu partikularrak eta seguru etxeekin
• Beherakokak
• Erranketak
• Lekeak
• Eskalak, korreak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

GAUR Udazken itxura hartuko du eguraldiak. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da, hoztu egingo du, eta zaparradak botako ditu. Ekaitezak ere jo dezake goizean. Arratsaldean atertzera egingo du. **Min.12° / Max.17°**

BIHAR Giroa nahasia izango da. Zeruan lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira, eta noizean behin euri pixka bat egin dezake. Arratsaldean indartu egingo da haizea. Temperatura epeldu egingo da. **Min.10° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI EGUZKI PLATAFORMA

«Aire kalitatearen kontrolaren gabeziak» salatu ditu Eguzkik

Pasa den astean «Hernanin gertatutako matxurak agerian» utzi dituela dio, eta «kezkgarria» iruditu zaio Jauralaritzaren «erantzun epela».

EGUZKI talde ekologistak, pasa den astean Hernanin «piztutako alarmaren» harira, azaldu du «Eusko Jauralaritzaren Ingurumen Saila, Gipuzkoako zenbait eskualdetan behintzat, ez dela behar bezala zaintzen ari arnasten dugun airearen kalitatea». Ekainaren 4an, Nazioarteko Ingurumenaren Eguna bezperan sinatu du oharra.

Ondorio horretara iristeko hainbat datu eman ditu, Gipuzkoan Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak dauzkana 18 estazio publikoen emaitzak kontuan hartuta, eta azaldu du datuetan akatsen bat badago, izango dela «Ingurumen Sailak herritarrei eskainitako informazioa akastuna» delako, «Informazioa Ingurumen Sailaren webgunetik hartu» duela eta.

Isuri kimikorik ez

Joan den astean «alarma guztiak piztu» ziren airearen kalitatea kontrolatzeko «Hernaniko anbulatorio ondoan dagoen estazioa, 1.336 mikrogramo sufre dioxido (SO₂) neurtzera iritsi zelako. Lau orduz

«Beste herrietako estazioei ere errebaso txiki bat egin eta gabezia batzuk aurkitu ditugu»

SO₂ren neurketak zeharo deskontrolatu ziren».

Horregatik salatu zuen egoera Eguzkik, eta «Jauralaritzak oso modu epelean erantzun» duela dio, nahiz eta argitu duen «zenbaki horiek ez direla isuri kimiko baten ondorio, estazioaren neurgailuen matxura baten ondorio baizik». Horren aurrean, Eguzkik dio: «pozten gara isuri kimiko bat gertatu ez delako, baina, aldi berean, kezkgarria iruditzen zaigu Jauralaritzak erreakzionatzeko erakutsi duen gaitasun eskasa. Azalpenak ere propio eskatu egin behar izan zaizkio».

«Gabezia» eta «utzikeria», estazioak errebasatuta Hernanin gertatutakoa argituta, «beste herrietako estazioei ere errebaso txiki bat egin eta

gabezia batzuk aurkitu» dituela ere salatu du Eguzkik, «baita nolabaiteko utzikeria ere».

Hernanin, hasteko, «PM 10eko neurgailuak (partikula txikiak) joan den uztailetik ez du funtzionatzen (...) SO₂ko neurgailua ere ez dabil (...). Bestalde, estazio horrek, nahiz eta Hernaniko 'bolborategi kimikoa' zaintzen duen, ez du neurtzen PM 2,5 (are partikula txikiagoak), ez ozonoa, ez CO, ez CO₂, ez bentzenoa, ez etilbentzenoa, ez toluenoa... ezta beste konposatuak ere».

Hernanikoaz gain, Usubil edota Lasarte-Oriako estazioetan ere «gabeziak» aurkitu dituztela dio, edota Lezo, Beasain eta Zumarragakoan, eta gogorarazi du «errautestia berehala martxan jarri nahi dutela kontuan hartuta, estazio horiek askoz hobeto ekipatuta egon behar luketela. Errautestiaren kutsadura etengabe eta zorrotz kontrolatuko dutela agindu digute. Bada, Hernaniko kasuak agerian utzi du gaur egungo kontrola, behintzat, ez dela ez etengabea, ez zorrotza». ||

HERNANI ATLETISMOA

Eva Esnaola eta Amaïur Velez, gorenean dabilzan atleta hernaniarrak

Omenaldia egingo diote Esnaolari igandean Zorroagako Krosean. Parte hartzeko izena eman daiteke. Velez Espainiakorako sailkatu da.

ATLETA hernaniarren izenak ozen entzun dira egun hauetan.

Batetik, Eva Esnaolari omenaldia egingo diote igandean, Donostiako Zorroaga Fundazioak antolatutako Belaunaldiarteko Krosean. Bertan parte hartzeko izena eman dezakete oraindik, 8-14 urte bitarteko eskola umeek, eskoletan, eta 50 urtetik gorakoek, a.jimenez@zorroaga.eus helbidean edo 943 45 18 00 telefonoan.

Bestalde, Amaïur Velezek 16 urtez azpiko Espainiako txapelketarako minimoa lortu zuen larunbatean Durangon, 300 metro hesi proban; 47.50ekoa



da minimoa, eta 46.70 egin zuen Velezek. Hori horrela, Espai-

niako txapelketan ariko da utailaren 6 eta 7an, Gijonen. ||

HERNANI ARRAUNA

'Maialen' trainerua aurkeztuko da, larunbatean

Akarregi poligonoko Basqueland Brewing Project garagardotegian izango da, 19:00etan.

OSATU dute emakumezkoen trainerua berriro ere, Hernaniko Arraun Elkarte. Prest dago Maialen ontzia, denboraldiari ekiteko, eta aurretik, kide guztiak aurkeztuko dituzte.

Aurkezpen hori larunbat honetan egingo da, hilak 8, arratsaldeko 19:00etan, Akarregi poligonon dagoen Basqueland Brewing Project garagardotegian.

Gastuei aurre egiteko, garagardo dastaketa

Aurkezpen ekitaldia 19:00etan egingo bada ere, jakinarazi dute garagardotegia irekita egongo dela 17:00etatik 20:00etarako tartean.

Denbora horretan garagardo artisauak dastatu ahal izango dira, eta bildutako dirua, traineruak eragiten dituen gastuetara bideratuko da. ||

HERNANI 41-42AN JAIOTAKOAK

Bazkaritan elkartzeko deia, 41-42koek

Aurten 77 eta 78 urte beteko dituzte 1941 eta 1942an jaiotakoek, eta Errioguardan egingo duten bazkariaren bueltan ospatu nahi dute, ekainaren 15ean. Bertara joateko izena eman behar da ekainaren 8a baino lehen, telefono hauetakoren batera deituta: 943 55 07 31 edo 618 323 170 (Ixiar). ||

HERNANI ERAKUSKETA

Tailerretako haurren lanak, ikusgai

Biteri kultur etxean ikasturtean zehar egin dituzten tailerretan egindako lanak ikusgai jarri dituzte haurrek, erakusketan. Biterin bertan ikusi daitezke. ||

HERNANI AMHER

Hernaniar berriei, ongietorria

Urtero bezala, Amher elkarteak ongietorria eman nahi die Hernanira iritsi diren bizilagun berriei. Hitzordua ekainaren 10ean jarri du, Latsunbe 42ko lokalean, 16:00etan. Informazioa eman eta herrian ibilaldia egingo dute. Elkarte edo mugimenduren batek bere informazioa zabaltzea nahi izanez gero, Amherrekin jarri behar da harremanetan ostirala baino lehen, lokalera gerturatuta. ||

HERNANI AZKEN KILOMETROA

Haimar Zubeldia eta Tolin gaur, Hernanin

Azken kilometroa bizikleta dendan izango da gaur, 19:30etatik aurrera, Haimar Zubeldia, Titan Desert lasterketan bizitako abenturen berri emateko. Horrez, gain, J.M Tolin *Emoción* liburua aurkeztura gerturako da. ||

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna, Haur Hezkuntza graduatua, umeak zaintzeko prest. **Deitu:** 695 753 292 **Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira** Hernaniko taberna batean. C.V.a eta argazkia **Bidali:** bzhernani@gmail.com

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerro eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv** info@landanet.net edo **deitu 943318606.**

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. **Deitu:** 943 27 78 51

Hernaniko Etxeberri uzoan uztaiera arte martxan dagoen eta harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilazioa dela eta. Interesatuak **Deitu:** 689 290 923

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu:** 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)